

SORGIÑAK EUSKALERRIAN

EDESTI IKARAGARRIA.—«Sorgiñak», berba au entzunez bakarrik, guk gaur barre egiten dogu... baiña ez ziran barreka il Euskalerrian sugarretan il ziran sorgiñak.

Sorgiñak izan dirala eta ez dirala, guk uste dogu dana guzurra izan dala, baiña sorgiñen edestia todo historia Euskalerrian luzea eta bildurgarria izan da.

Gaur alako zati txiki bat bakarrik emongo dot, beste egun batean jarraitzeko asmoz...

* *

PIERRE DE LANCRE JAUANA.-- Laburdin euskal sorgiñen erretzallea Pierre De Lancre Jauna izan zan.

De Lancre frantsesa zan, eta euskaldunen arerio amurratua.

Laugarren Endrike Erregeak aginduta, Bordeletik (Burdeos) Laburdira etorri zan su ta gar 1.609 urtean, Euskalerriko sorgin guztiak bein betiko «garbitzeko» asmoz.

Berak esaten eban: «Obe da amar errubako iltzea, sorgin batek nire eskue. tatik iges egitea baiña».

* * *

ZERGATIK EUSKALERRIAN AINBESTE SORGIN. — Pierre De Lancre Jaunak lau arrazoi edo zio emoten ditu gure errietako sorgiñen ugartasuna azaltzeko.

Arrazoi oneik gaur guretzat barre-garriak dira, baiña orduan eta ordukoentzat guztiz onak eta benetakoak ziran.

* †

SAGARRAK ERRUDUN.—Euskalerrian sagar asko dago, eta sagarra deabruaren igalia-frutua da.

Satanasek sagarraren bidez engañatu-atzipetu eban Eba, eta onen bidez Adan.

Orregatik sagar asko dagoan lekuan deabru asko egon bear, nai ta naiez, eta sorgiñak deabruaren seme-alabak dira.

* *

EUSKALDUN MIXIOLARIAK.-- Euskalerritik mixiolari asko joaten dira Indietara, Txinara eta Japonera Kris-

toren fedea zabaltzera, eta ango lurraldeetatik mixiolariak uxatu dabezan deabruak mixiolarien sorterrira etorri dira, an bizitzeko lekua mixiolariak kendu deutezelako.

De Lancre Jaunak «serio - serio» diño, zelan Indietako itsasoetan ibili diran mariñelak, millaka deabruak ikusi dabezan laiñoen gainetik egaz, Txinatik Euskalerrira etorten.

M

EUSKERA ERRUDUN.—Euskaldunak misteriozko izkuntza zikin batez berba egiten dabe.

Euskerak ez dauka antzik ez frantsesarekin, ez beste edozein izkuntzekin.

Euskera izkuntza basatia da, eurak bakarrik ulertzen dabena.

Nork erakutsi deutse euskaldinei izkuntza zatar eta naastu ori?

Satanasek berak.

• *

EUSKALDUNAK EUSKALDUN. Euskaldunak esaten dabe, eurak ez dirala ez frantsesak, ezta espagnolak.

Orduan zer dira ba?

Satanas beraren seme-alabek.

* *

s. x

SORGIÑAK ERRETTZERA. — Arrazoi edo zio eder oneik buruan ondo sartuta, eta euskaldunen aurka gorrotoz beterik, De Lancre Laburdira etorri zan, eta laster bete ziran espetxeak «sorgiñez».

Edozeiñek salatzen ba'eban bere auzokoen bat sorgintzat, laster errea izango erriko enparantzian.

* *

ZAZPI ELEIZ - GIZON ERRE.- Eleiz - gizonetatik asi zan Pierre De Lancre Lanean euskaldun guztien «eskarmenturako».

Azkain'go parroko Argibel Jauna, gizon ona, gixajoa, sorgintzat salatua izan zan, eta bere abade jantziak kenduta, edozein lapur bezela, bere erriko enparantzian errea izan zan.

Zergatik?

Argibel Jaunak Jaungoikoa ukatu eta Deabrua gurtutzen - adoratzan ebalako, Meza emotean ogi ordez iketz



zati bat sagaratzen ebalako, umeak bateatzean sorgin egiten zituelako...

*

EUSKALDUNAK BILDURREZ IGESKA.—Errietako euskaldunak ikaratuta, bildurtuta euren etxeetatik basora igeska asi ziran, baiña orixe bera zan De Lancre'rentzat arrazoirik onena sorgiñak zirala jakiteko.

«Kontzientzia garbia baleukie», esaten eban «ez leukie justiziagandik iges egingo».

Eta onela iru illebetan sorgiñak arrapau, lotu eta erretzen ibilli zan Laburdiko errietan.

Zenbat erre zituen?

Ezin esan, baiña eundakak bai.

* *

EUSKALDUN ARRANTZALEAK ETA DE LANCRE.—Gauza oneik Laburdin jazoten ziran bitartean Donibane Lohitzuneko arrantzaleak Terranobako uretan makallaua arrapatzen ebizen.

Laburdin, euren emazteak erretzeko arriskuan egozala jakin ebenean, makallaua alde batera itxi, eta bereala etxeratu ziran.

De Lancre Jaunak arrantzaleen bildurrez Paris'era anka egin eban, bere narrua gordetzeko, bestela ez eban bizirik untengo.

GOIKOETXEA'TAR IÑAKI'K

(Jarraituko dau)